

“Mikroskopia bat erabiltzen dut harriak aztertzeko”

Inge Barreros eta Harold Casilla, Andoainen, 2024ko urtarrilaren 10ean

Manu Zeberio (Donostia, 1977) Arkeologo eta Kartografoa

Manu Zeberio *Historia ikasi zuen eta Arkeologoa da, baina Kartografia gustatzen zaio. Txikitan ez zuen espero hori izatea, aspergarria iruditzen zitzaion. Txikitan, nahiago zuen suhiltzaile izan Kartografo izatea baino.*



Manu Zeberio

Zenbat urte daramatzu lan honetan?

25 urte daramatzat lan honetan.

Zer ikasketa behar dira Kartografia lanetan aritzeko?

Kartografian aritzeko ez dago ikasketarik, baina ikasi behar da mapak irakurtzen.

Zergatik da inportantea kartografia? Zer erakusten digu?

Gehien bat, gure gaur eguneko izakera, edo mundua azaltzen du. Kartografiak klima aldaketa adierazten du.

Ondo iruditzen zaizu kartografia ikastetxeetan erakustea?

Bai, ondo iruditzen zait kartografia ez delako oso ezaguna, gazteek nahiago dutelako beste gauza batzuk ikasi eta kartografia interesgarria da.

Kartografiarekin lotuta, zer ikasi beharko genuke ikasteetxetan?

Eskalak, koordenatuak, mapa grafikoak identifikatzen ikasi beharko litzateke eta Historia pixka bat.

Ze tresna behar dituzu mapa bat egiteko?

Orain ordenagailuak, baina lehen, erregela eta arkatz bat.

Zer da zailena Kartografian?

Ez dakit, baina Kartografia gehiena sateliteen bidez egiten da.

Zure ustez, zer da zailena mapa bat egiterakoan?

Ez dakit, nik ez ditut egiten, baina nire ustez, puntuak kokatzea, mailakatzea, kokapen zehatza zein den, gaur egun, errazagoa da makina batekin egiten da eta.

Nola sortu zitzaizun kartografiarako zaletasuna?

Hasieran, ez nuen kartografo izateko asmorik, baina denborarekin konturatu nintzen Kartografia oso interesgarria zela.

Beste zaletasunik baduzu?

Mikroskopia bat erabiltzen dut harriak aztertzeko.